

OHAR GARRANTZITSUA:

Ataza honetako ikaslearen orriak aldizkari txiki baten formatuan dituzue. Aldizkari-itxura eman nahi badozue, kopiak DIN A3 tamainan atara ditzakezue, eta erditik tolestu, ondoko irudietan bezala:

Lehenengo DIN A3a (kanpokoa):

AZALA ETA KONTRAZALA

2. ETA 7. ORRIALDEAK

08 ekarpenak



AIMAR KARDIKAREN BERTSOAK

Gerta zaharretan eta Zuzen auzoan gertatzen diren gertakizunen inguruan. Bertsoak, antzerkiak, irudiak eta abar. Bertsoak, antzerkiak, irudiak eta abar. Bertsoak, antzerkiak, irudiak eta abar.

Zaldierdoren Komedia

De Buruen Barua

LEHEN EGUNA



21 KORRIKA

Egin klik KORRIKARI! B1



1980an hona, KORRIKAREN hogei edizioetan, hamalaka lagun bakarrik izan dira KORRIKARIak. Zer da KORRIKARIaren 21. KORRIKA izendatzen du, Gaurko gara, eta zehazki edozein gutxiagozko lekua egongo da. Zueira izango ote da horietako bat?

02 21 KORRIKA

KORRIKARIko istorio bitxiak



KORRIKARIaren hogei edizioetan, denetarik pasadizko gertatu zaldie antolatzaile eta parte-hartzaileak. Orri hauetan, gure hartzak irakurri ahal izango dituzte.

Mozua gaur, mozua behor.

1980an hona, KORRIKAREN hogei edizioetan, hamalaka lagun bakarrik izan dira KORRIKARIak. Zer da KORRIKARIaren 21. KORRIKA izendatzen du, Gaurko gara, eta zehazki edozein gutxiagozko lekua egongo da. Zueira izango ote da horietako bat?

denbora-pasak **07**

LAURI LEBROA

Hizak bete ondoren, izenak bete behar dira. Izenak bete ondoren, izenak bete behar dira. Izenak bete ondoren, izenak bete behar dira.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Izan korrika laguntzailea



Bigarren DIN A3a (barrukoa):

6. ETA 3. ORRIALDEAK

4. ETA 5. ORRIALDEAK

06 21 KORRIKA

HEBERT BERROKATZ

"Hiru izango da aize beharago KORRIKA"

Hiru izango da aize beharago KORRIKA. Hiru izango da aize beharago KORRIKA. Hiru izango da aize beharago KORRIKA.

OLATZ GORTIOLA

"Pezkatariek KORRIKA batzordeko kidea da"

Pezkatariek KORRIKA batzordeko kidea da. Pezkatariek KORRIKA batzordeko kidea da. Pezkatariek KORRIKA batzordeko kidea da.

Gaurko gara

korrika istorio bitxi

03

Gose-grabatarik korrika

Gose-grabatarik korrika. Gose-grabatarik korrika. Gose-grabatarik korrika.

KORRIKARIAN parte hartzeak eziz

KORRIKARIAN parte hartzeak eziz. KORRIKARIAN parte hartzeak eziz. KORRIKARIAN parte hartzeak eziz.

Beltz iruzia da KORRIKA

Beltz iruzia da KORRIKA. Beltz iruzia da KORRIKA. Beltz iruzia da KORRIKA.

04 21 KORRIKA

KORRIKA 2020an

KORRIKA 2020an. KORRIKA 2020an. KORRIKA 2020an.

KORRIKARIAN parte hartzeak eziz

KORRIKARIAN parte hartzeak eziz. KORRIKARIAN parte hartzeak eziz. KORRIKARIAN parte hartzeak eziz.

Gaurko gara

PATU BERTSOAK

05

Hamaika modu KORRIKA parte hartzeko

Hamaika modu KORRIKA parte hartzeko. Hamaika modu KORRIKA parte hartzeko. Hamaika modu KORRIKA parte hartzeko.

AMARA URIBI

"Torturatu hiru izan dit parte KORRIKARI, hutsik gogin" gabe

Torturatu hiru izan dit parte KORRIKARI, hutsik gogin. Torturatu hiru izan dit parte KORRIKARI, hutsik gogin.

MIKEL BELLER

"Pribilegia da KORRIKA animatzen duten fargunetaren bitartea"

Pribilegia da KORRIKA animatzen duten fargunetaren bitartea. Pribilegia da KORRIKA animatzen duten fargunetaren bitartea.

EGIN KLIK KORRIKARI! B1

HELBURUA

Ataza honen helburua dira ikasleak KORRIKAREN giroan murgiltzea eta parte hartzera animatzea.

PROZEDURA

A. "EGIN KLIK KORRIKARI!" ALDIZKARIA AURKEZTU

A.1 "Aimarren bertsoak osatu" jolasa

- Aldizkariak banatu aurretik, eman "Aimarren bertsoak" orria ikasleei (irakaslearen orrietan, 4. or.), eta irakurri bertsolariaren aurkezpena.
- Jolasa argi azaldu ondoren, "Aimarren bertsoak 1" bideoa ikusiko dugu, eta ikasleak, binaka, oinak dagozkien lekuetan idazten saiatuko dira. Idazteko eta oina bilatzeko denbora emateko, bideoa eten dezakegu, edo behin baino gehiagotan ikusi.

- Zuzentzeko, "Aimarren bertsoak 2" bideoa ikusiko dugu.

ERANTZUNAK:

Bertso-oinak dagokien hurrenkeran:

- 1) gazteko, askeko, adierazteko, hazteko, marrazteko, hasteko, irabazteko
- 2) eredugarria, ekarria, miresgarria, berria, orria, gorria, Herria.

- "Egin klik KORRIKari! B1" aldizkaria banatu, eta bertsoak komentatuko ditugu (aldizkariaren 8. or.): ulertu dituzten (partida irabazteko bat falta dela esatean, pilota-partidei egiten die erreferentzia, 22ra baitira, eta 21. KORRIKA da...), zer iruditu zaizkien...

A.2. Zaldieroaren komikia

- Zaldieroa komikigilearen aurkezpena irakurri eta ezagutzen dugun komentatuko dugu labur (irakaslearen orrietan, 4. or.).
- Aldizkariko komikia irakurri (8. orrialdean hau ere) eta ulertu duten, gustatu zaien... komentatuko dugu (KORRIKAREN hasiera irudikatzeko, komikigileak Indiana Jonesen film bat dakar gogora).

B. KORRIKAKO ISTORIO BITXIAK

B.1. Istorioak irakurri eta elkarri kontatu

- Ikasleek "KORRIKako istorio bitxiak" artikulua irakurriko dute: ikasle bakoitzak istorio bat irakurtzeko eta ondo ulertzeko ardura izango du (aldizkariaren 2.-4. or.).
- Taldeka elkartu, eta istorioak elkarri kontatuko dizkiote.
- Solasalditxo egingo dugu: zein istorio gustatu zaizue gehien? Zeinek harritu zaituzte gehien? Ezagutzen al duzue horrelako istorio gehiago?
- Bakarka, aldizkaritxoan proposatzen zaien ariketa egingo dute. Zuzenketa, talde handian egingo dugu (aldizkariaren 4. or.).

ERANTZUNAK:

1. 1980an, AEK-ko lagunek Euskal Herri osoa zeharkatzeko asmoa zuten, korrika.
2. Baina antolaketa-arazoek eta eguraldi kaskarrak ez zuten KORRIKA gelditzea lortu.
3. 1985eko maiatzaren 21ean, gose-greba egiten hasi ziren Gasteizko AEK-ko zazpi irakasle.
4. Seigarren KORRIKAN, azkenean, Barandiarani omenaldia eskaintzea erabaki zuen AEK-k.
5. Zurrumurruak KORRIKAREN antolatzaileengana heldu ziren arren, inork ez zituen serio hartu.
6. Kateak jarrita, KORRIKA animatzen zuten autoek aurrera egin nahi izan zuten...

B.2. KORRIKako istorioen lehiaketa

- "Neure KORRIKako istorioa" orria banatu ondoren (irakaslearen orrietan, 5. or.), istorio-lehiaketa aurkeztu, eta ikasleak parte hartzera animatuko ditugu.

Oharra: lehiaketan KORRIKako bizipenak kontatu behar direnez, ariketa hau KORRIKA igaro ondoko egunetarako utz dezakegu, edo, nahi izanez gero, aurreko edizioetako bizipenak idatz ditzakegu.

C. KORRIKAN PARTE HARTZEKO MODUAK

- "Hamaika modu KORRIKAN parte hartzeko" artikuluan, ikasleek lau lagunen bizipenak irakurri eta proposatzen den ariketa egingo dute (aldizkariaren 5.-6. or.).

ERANTZUNAK:

1. nahiz eta. EGIA; 2. gaitu. EGIA; 3. denetik. EGIA; 4. ikasten. GEZURRA; 5. egiten. GEZURRA; 6. batzordeetan. EGIA; 7. hain. EGIA; 8. egiteko. EGIA

- Solasalditxoa egingo dugu: zein lagunekin identifikatu zara gehien? Zuk nola bizi izan duzu KORRIKA?
- Hiriko, herriko edo auzoko KORRIKA -egitarauaren berri eman, eta parte hartzera animatuko ditugu: prestaketan guri edo KORRIKA batzordekoei laguntzeko (herria apaintzen, materiala saltzen, txandaren bat egiten...) edo gelakoekin planen bat egiteko (ekitaldiren batean parte hartzeko, herri-bazkarira elkarrekin joateko, euskaltegiaren kilometroan korrika egitera joateko, KORRIKA hasiera edo amaierara joateko...).

D. DENBORA-PASAK

- Denbora-pasak egingo dituzte (aldizkariaren 7. or.).

ERANTZUNAK:

Esaera zaharra: Gogoko lekuan aldaparik ez.

Hitzak: 1. Gorotza; 2. Dultzainak; 3. Kea; 4. Lepoa; 5. Guk



AIMAR KARRIKAREN BERTSOAK

Aimar Karrika (Auritz, 1988).

Gaur egun, Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko "Bertsolarien Lagunak" bertso-elkarteko dihardu lanean, irakasle. 18 urte bete zituenetik hartzen du parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Azken hiru edizioetan, finalera iritsi da. 2017an hartu zuen parte lehen aldiz Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusian.

Jarraian, 21. KORRIKari eskaini dizkion bertso batzuk entzun eta irakurriko ditugu.



AIMARREN BERTSOAK OSATU

Ikasle nekaezina

Heldu (1)

Irakasle militante

Amets batek (2)

(3)

(4)

(5)

(6)

(7)

Gazte zaharkitu eta

Zahar aldarte (8)

(9)

(10)

(11)

(12)

(13)

(14)

ORRIA
BERRIA
EKARRIA

GORRIA
HERRIA
MIRESGARRIA

HASTEKO
ADIERAZTEKO
HAZTEKO

IRABAZTEKO
ASKEKO
MARRAZTEKO

ZALDIEROA KOMIKIGILEA

Patxi Huarte Larraburu, Zaldieroa (Faltzes, Nafarroa Garaia, 1966ko urtarrilaren 14a), euskal komikigilea da. Gaur egun, Berria egunkarian, *De rerum natura* komikizintak egiten ditu, eta kolaborazioak egin izan ditu *Aizu!*, *Nabarra*, *Bertsolari*, *Xabiroi* eta Karrikiri elkartearen *Karrika* aldizkarietan. Deia egunkariko *Ortzadar* gehigarrian ere argitaratzen du.

Jarraian, 21. KORRIKArako sortu zuen komikia dugu.



